

HILETA ZIBILAK EGITEKO ESPAZIO PROPOSAMENARI BURUZKO KONTROL MOZIOA

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkeztu du, Udalbatzaren azter dadin. Mozioa 2018ko maiatzaren 14an Pertsonentzako Zerbitzuetako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Gure hirian gero eta ohikoagoa da hileta zibilak egitea, bai eta bestelako ekitaldi zibilak ere, nahiz eta beste maila batean. Horiek egiteko leku publikoaren faltan, herritarrek zailtasunak dituzte areto egokiak aurkitu eta erabiltzeko. Udalak ere orain arte ez dio erantzun egokirik eman.

Udal Gobernuak bere programan Udaleko espazioei erabilera berriak ematea eta, zehazkiago Aieteko Jauregia hileta zibilak egiteko asmoa iragarri zuenez, eta Gobernuaren agindu hartatik hiru urte betetzear direnez, alkateari idatzizko galdera egin genion apirilean eta erantzun zigun gaia aztertzen ari zirela. Irisgarritasun baldintzak direla-eta, Aiete horretarako erabiltzea baztertua dutela, baina horren ordezko espazioaz hitzik ere ez.

Udal Gobernuak osatzen duten kideek ezagutzen zuten Aieteko irisgarritasun egoera proposamena egin zutenean, alegia, ezintasunen jakitun baziren; are eta gehiago, beren promesa gauzatzeko espazio ordezkoaren beharra zutela jakin bazekiten, 2016an bertan, Aieteri beste erabilera bat ematea erabaki zutenetik (alegia, Eusko Jaurlaritzarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hitzartu dutena: Giza Eskubideetako baliabide pedagogikoetarako zentro izatea).

Beraz, hileta zibilei dagokienez, hiru urte pasatu ondoren, irtenbiderik gabe eta bere agindua bete gabe dago Udal Gobernuak. Are eta gehiago, Udalbatzaren aginduak ere bete gabe geratu dira: izan ere, iazko maiatzean Irabazi Donostia udal taldearen ekimenez, aho batez onartu genuen mozio bat, Udal Gobernuak zerrendatze bat egiteko eta, horrekin batera, egon daitezkeen aukeren berri herritarren ezagutzapean jartzeko.

Honi guztiari buruz interpelatuta, Udal Gobernuaren erantzuna izan da berriz errepikatzea aztertzen ari direla, alegia, oso aspaldian eginga egon beharko litzatekeena oraindik ere egin gabe dagoela, eta bultzatzeko asmo sendorik ikusi gabe.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA**:

- Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari hertsiki eskatzen dio lehenbailehen egiteko hileta zibilak egiteko proposamen egoki bat, Udaleko laguntza, aukera eta balizko lekuen zerrendatzea barne, eta berau udal taldeekin zein herritarrekin konpartitzeko.



EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

- Donostiako Udaltzarak Udal Gobernuari hertsiki eskatzen dio bete dezala Udaltzari 2017ko maiatzaren 25ean eman zion agindua.

Donostian, 2018ko ekainaren 14an

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
EH BILDU udal taldeko zinegotzia